

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### FUNTZIO PUBLIKOA

#### **Udaltzaingoko agente plazetan txanda irekiaren bidez sartzeko deialdia eta haren oinarriak onesten dituen ebazpena**

Udal honen Udaltzaingoko oinarrizko eskalan hutsik dauden lanpostuen zerrenda ikusi da.

Kontuan hartu da Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legeak 44. artikulutik 59.era birtartekoetan eta gehigarrizko zortzigarren xedapenean Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetarako funtzionarioak hautatzeari buruz adierazten duena.

Kontuan hartu da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udaltzaingoarean antolaketaren eta kudeaketaren eskumenei buruz adierazten duena.

Kontuan hartu da Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak – gerora 57/2003 Legeak aldatua –, 127.1.h artikuluan, Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen diola lan-eskaintza publikoa onesteko eskumena, baita langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onestekoa eta langileen inguruko bestelako erabakiak –beste organoren bati aitortu ez zaizkionak – hartzekoa ere.

Kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako aginduak, IV. kapituluaren 2. ataleko 36. artikuluan jasotzen baitu printzipio orokorra, euskal administrazio publikoek aukera-berdintasunerako baldintzak eta enplegua eskuratzeko tratua berdintasuna susta ditzaten, baita Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren I. tituluko 5. artikuluan eta V. tituluko 51. artikuluan xedatutakoak ere, eta aintzat harturik lege organiko horrek berak, I. kapituluko 11. artikuluan, ekintza positiboen edukia eta xedea definitzen dituela, desberdintasun egoera nabarmenak zuzentzeko zuzenbide-tresna gisa.

Kontuan hartu da Tokiko Gobernu Batzarraren 2011ko ekainaren 13ko erabakiaren bidez Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari – Tokiko Gobernu Batzarreko kide den alde-tik – aitortu zitzaizola Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen 57/2003 Legearen 127.1.h artikuluan araututako eskumena, enplegu eskaintza publikoaren deialdiaren oinarriari eta lanpostuak betetzeari dagozkienetan.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak – abenduaren 16ko 57/2003 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 27. artikulua aldatua – 127. artikuluan aitortzen dituen eskumenak baliaturik eta alkateak 2016ko maiatzaren 24an Funtzio Publikoaren Arloko zinegotziari emandako aginpidea dela medio, hauxe ebatzi dut:

1. Udaltzaingoko oinarrizko eskalan 32 agente plaza, txanda irekian, betetzeko hautatze prozesuaren deialdia onestea; Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 22an Udaltzaingorako onetsitako eskaintzari dagozkio (20 plaza derrigortasun datarik gabeak eta 12 derrigortasun data igaroa dutenak).

2. Deialdia arautuko duten oinarriak onestea, zeintzuk ebazpen honen eranskinean jaso baitira.

3. Deialdia eta oinarriak ALHAOn argitara dezaten agintzea.

4. Eskaera-orriak aurkezteko epea deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunetik aurrera hasiko da.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio bidea, eta, berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratze-egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

### **Udaltzaingoaren zerbitzuan karrerako funtzionario sartzeko oinarriak**

#### **Lehena. Deialdiaren xedea**

1.1. Gasteizko Udaleko Udaltzaingoan hutsik dauden 32 agente lanpostu –karrerako funtzionarioentzat direnak– behin betiko adskripzioz betetzea du helburu deialdi honek, oposizio eta merezimendu-lehiaketa sistema baliatuz horretarako. Lanpostuak udaltzaingoko oinarrizko eskalakoak dira.

1.2. Lanpostuen hizkuntza eskakizuna (euskara): 2. 32 lanpostuetatik 12k dute hizkuntz eskakizunaren data igaroa dute eta 20k ez.

1.3. Lanpostuak C2 taldekoak dira. Destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 500. Lanpostuaren soldata, karrerako funtzionario gisa, 2.508,39 eurokoa da hilean, 2016an.

1.4. Aurreko atalean adierazitakoaz gain, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen sailkapeneko C1 taldean sailkatuko dira kidegoan sartzeko oinarrizko ikastaroa eta praktika aldia gainditu ondoren udaltzaingoko oinarrizko eskalako funtzionario izendatzen direnak. Sailkapen honen ondorio ekonomiko eta administratiboak toki erakundeen menpeko polizia kidegoen esparrura bakarrik mugatuko dira, eta ez du irakaskuntza, hezkuntza eta akademi arloetako inolako baliokidetasunik edo aitortzarik ekarriko.

1.5. Oinarri orokor hauen bitartez arautuko da hautatze prozesua, honako lege-arau hauen ildotik: 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 14., 23.2. eta 103.3. artikulua; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (7/2007 Legea); Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea; Euskal Herriko Poliziaren hautatze eta gaitze araudia onartu zeneko uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua (1994ko abuztuaren 19ko EHAA, 157. zk.); Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren antolaketari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legea, Toki Jaurbi-dearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legea; Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa; Toki Administrazioari buruz indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartu zeneko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretua; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria, Polizia Lokalaren Kidegoei dagokienez; Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Eusko Jaurlaritzaren Gizon eta Emakumeen berdintasunerako 4/2005 Legea.

1.6. Deialdiari buruzko informazioa, eskabideen aurkezpena eta jarraipena:

– Web-orria: [www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak](http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak).

– Iragarki-taula elektronikoa.

– Herritarrei laguntzeko bulegoak (San Antonio kalea, 10) eta gizarte etxeetako bulego-sarea.

— Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik deituz gero) edo 945 161100 (Gasteiztik kanpotik deituz gero).

### **Bigarrena. Lehiakideek bete beharrekoak eta deialdiaren baldintzak**

2.1. Prozeduran parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako izan behar dituzte betekizun guztiak, salbu eta 2.4.2, 2.4.3 eta 2.7 a ataletan ezarritakoak, eta indarrean egon beharko dute Gasteizko udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategoriako karrerako funtzionario izendatu arte, prozedurako zein fasetan egiaztatu behar ziren gorabehera.

2.2. Espainiar nazionalitatea izatea.

2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu titulua izatea, edo horren baliokidea edo goragoko beste edozein

2.4. Gidatzeko baimen hauek izatea:

2.4.1. Turismoentzako B gidabaimena, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako.

2.4.2. Motozikletentzako A2 gidabaimena, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik 6 hilabetera, gehienez.

2.4.3. Motozikletentzako A gidabaimena. Karrerako funtzionario izendatzeko ezinbestekoa.

Prestakuntza eta praktika aldietan, aipatutako baimen horiek indarrean egongo dira, esan nahi baita, epe horretan ez dadila gertatu administrazioak edo epaileak aginduta baimena eten edo kentzea edo gidatzeko eskubideaz gabetzea, ez eta esleitutako puntu guztiak galtzea ere.

2.5. Gutxieneko garaiera izatea: gizonezkoek 1,65 eta emakumezkoek 1,60 (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zk.).

2.6. Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartu zeneko Dekretua bigarrenez aldatzeko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean aurreikusitako baztertze medikurako gaitzik ez izatea. (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zk)

2.7. Derrigortasun-data igaroa duten lanpostuetarako, 2. hizkuntza-eskakizuna edukitzea edo deialdian hori egiaztatzeko egingo diren probak gainditzea. Hautatze-prozesu honetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den egunerako bete behar da baldintza hori.

2.8. Oposizio, merezimendu-lehiaketa, eta oposizio eta merezimendu-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak ezarriak dituen tasak ordaindu izana (ikus 3.5, 3.6 eta 12.1 oinarriak).

2.9. Iruzur deliturik egiteagatik zigorrak jaso ez izana (birgaitze eskubidea aplikatu daiteke), eta herri administrazioaren zerbitzuetik egotzitakoa edo jarduera publikorako ezgaitua ez izatea.

2.10. Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Herriko Polizia kidegoren batera sartzeko inongo hautaketa prozesutatik baztertua ez izatea; halakorik bada, baldin eta baztertzea erabaki zen egunetik zigorraren iraungipen epea igaro bada, debeku horrek ez du indarririk izango.

2.11. Eskabidea aurkezten den unean ez da betebeharrak eta merezimenduak egiaztatzeko agiririk eskatuko. 7.1 eta 12.1 oinarrietan zehazten da noiz aurkeztu behar diren agiri horiek. Hautatze-prozesuan parte hartzeko onartuak izateko lehiakideek aski izango dute eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adieraztea eskabidean, edo eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik beteko dituztela.

2.12. Deialdiko baldintzak onartzeko konpromisoa eta hautatze-prozesuan zehar nahiz prestakuntza- eta praktika-aldian betebeharrak betetzea dakar berekin eskabidea aurkezteak. Deialdia egin duen organoak behar diren egiaztagiria eskatzerik izango du edozein unetan; horiek ez izateak edo faltsutu izanak deialditik kanpo uztea ekarri ahal izango du berekin —interesdunari entzun ondoren—.

**Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea**

3.1. Eskabideak “www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak” web orrian aurkez daitezke, baita tasak ordaindu ere.

3.2. Hogei egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

3.3. Probak zein hizkuntzatan, euskaraz ala gaztelaniaz, egin nahi dituzten adierazi beharko dute lehiakideek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela esan nahiko du. Hala ere, gaitasun psikologikoak eta pertsonalak ebaluatzeko probak diseinatuta dauden hizkuntzan egingo dira —gaztelaniaz edo euskaraz eta gaztelaniaz—.

3.4. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten lehiakideek —betebeharra nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei.

3.5. Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Lehiakide bakoitzak eskabideak aurkezteko epea irekitzen denean indarrean dagoen ordenantzak ezarritakoa ordaindu beharko du.

3.6. Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordaindu beharko da tasa. Ordenantza fiskalean jasotzen den salbuespen edo murrizketarik baliatzen ez bada, behar bezala egiaztatu beharko du lehiakideak horretarako eskubidea duela (ikus 12.2 oinarria).

3.7. Agiri bidez edo horretarako egiten den probaren bitartez lanposturako eskatzen den euskara-maila dutela egiaztatzen dutenak derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten nahiz ez duten lanpostuetarako lehiatuko dira.

3.8. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko betebeharrei dagokien agiririk (bete-beharrak egiaztatzeko ikus 12.1. oinarria). Merezimenduak (hizkuntz eskakizuna) hautatze-prozesuan zehar egiaztatu ahalko dira, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko lehen proba egiteko egunera arte.

**Laugarrena. Onartuen eta baztertuen zerrenda**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, lehiakideen behin-behineko zerrenda onetsiko du Funtzio Publikoaren Arloko zinegotziak, eta ALHAOn eta udalaren iragarki-taulan argitaratzeko aginduko. Orobat adieraziko da 10 egun balioduneko epea izango dela erreklamazioak aurkeztu nahiz izandako akatsak zuzentzeko.

**Bosgarrena. Epaimahaia**

5.1. Honakoek osatuko dute epaimahaia:

Epaimahaiburua:

— Epaimahaiburua eta ordezkoa.

Epaimahaikideak:

— Gasteizko Udaleko Udaltzaingoan aginte zereginak dituen pertsona bat eta ordezkoa

— Berdintasun Zerbitzuak proposatutako bat eta ordezkoa.

— Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak proposatutako teknikari bat eta ordezkoa.

Idazkaria:

— Udaleko teknikari bat eta ordezkoa.

5.2. Epaimahaiek espezialitate printzipioari erantzun beharko diote. Hortaz, botoa emateko eskubidea duten epaimahaikide guztiek izan beharko dute lehiakideei eskatutakoaren maila bereko edo goragoko titulazioa, eta erdiak, gutxienez, jakintza alor berekoa.

5.3. Gizonezko eta emakumezkoen arteko oreka izan beharko du epaimahaiak, hau da, gutxienez ehunetik 40 izan beharko dute batzuek nahiz besteek, hori egoki ez dela justifikatu ezean.

5.4. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek.

5.5. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiak bere aurrean irakurtzekoak ez diren oposizio-aldiko idatziko ariketak zein lehiakiderenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

5.6. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

5.7. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du.

5.8. Funtzio Publikoaren Arloko zinegotziak izendatuko ditu izendatu beharreko epaimahaiakideak.

5.9. Eskatzaileen zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaiakide eta ordezkoen izenen zerrenda.

5.10. Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun kideen erdia baino gehiago-titularrak nahiz ordezkoak- bertan ez badira (edo urrutiko gailuen bidezko asistentzia ez badute)

5.11. Epaimahaiko idazkaria –baita haren ordezkoa ere– ordeztu beharra badago –kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoi-rengatik–, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko ditu.

5.12. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago –kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoi-rengatik–, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa. Maila berekoen artean, adinduena.

5.13. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) ordezkari bat epaimahaiakide izango da deialdian eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetan.

5.14. Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako kasuetan, epaimahaiakideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, lehiakideek errefusatu egin ahal izango dituzte.

5.15. Lehiakideren batek deialdian ezarritako betebeharretakoren bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautatze prozedurako edozein unetan, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, lehiakideak egindako okerren nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere alde zuzenetik interesatuari entzun ondoren.

5.16. Gasteizko udalaren iragarki-taula elektronikoa izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua, Administrazio Publikoaren Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 b) eta 43. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta banan-banako jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte argitalpen horiek. Hala ere, Funtzio Publikoaren Sailak 1.6 oinarrian adierazitako bideak ere baliatuko ditu informazioa zabaltzeko.

5.17. Epaimahaiaren jarduera nahiz argitalpenak direla-eta egiten diren alegazioak baliabide elektronikoz edo idatziz aurkeztu beharko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, argitalpenean beste prozesurik zehaztu ezean..

**Seigarrena. Ariketen nondik norakoak**

6.1. Ikasgaiak udalaren web-orrian argitaratuko den eranskinean ageri dira.

6.2. Lehiakide guztiek batera egiterik ez dagoen ariketetan, honela jokatu da: Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean zehaztutakoari jarraituz lehen deitura ariketa egiten den egunean indarrean den letrakoa duten lehiakideak hasiko dira lehenik.

6.3. Epaimahaiak nahitaezko probetarako zehazten dituen egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak bazterturik geratuko dira besterik gabe, pisuzko arrazoiak izanda ere. Berdin jokatu da nahitaezko probetara haiek egiten hasitakoan agertzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea nahikoa izango da ez dela agertu jotzeko. 6.11 oinarrian aipatutako egoeran daudenak hori betetzetik salbuetsita geratuko dira.

6.4. Nortasun-agiri ofiziala, gidabaimena edo pasaportearen eraman beharko dute lehiakideek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die epaimahaiak erakusteko. Agiria aurkeztu ezean, besterik gabe baztertuko da lehiakidea hautatze prozesutik.

6.5. Ariketak ezingo dira hasi deialdiaren azken iragarpen ofiziala egiten denetik hiru hilabete igaro aurretik. Lehen ariketa egiteko lekuaren, egunaren eta orduaren berri udalaren iragarri-taulan emango da, gutxienez zazpi egun natural lehenago. Prozesuari dagokion web-orrian ere jakinaraziko da.

6.6. Bater a egitekoak ez diren hurrengo ariketa-saioretara dei egiteko iragarkiak udalaren iragarki taulan argitaratuko dira, eta horren berri emango da udalaren web-orrian, gutxienez ere hurrengo saioa baino 72 ordu lehenago.

6.7. Oposizioko probak oinarri honetan adierazitako hurrenkeran ez baizik eta beste batean egitea erabaki ahalko du epaimahaiak, edo horietako batzuk egun berean egitea. Kasu horretan, aurrekoa gainditu dutenen emaitzak baino ez dira ebaluatuko. Hautatze-prozesura aurkezten den lehiakide kopurua kontuan izanik, probak hainbat txanda eta lekutan egitea erabaki ahalko du epaimahaiak.

6.8. Kautelazko neurri gisa, prozesura deituta dauden lehiakideak eta, orobat, deituta ez egonik ere, emaitzen aurkako alegazioa (epaimahaiari zuzenduta) edo berraztertze errekurtsoa (Funtzio Publikoaren zinegotziari zuzenduta) aurkeztu duten edo aurkeztu behar dutenek ere parte hartu ahalko dute probetan, beti ere ebatzi gabe badago. Bi kasuetan, hautatze-prozesuan jarraituko dutela jakinarazi behar diote epaimahaiari, beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jartzeko.

6.9. Zuzenbidean onartutako edozein frogabide baliaturik egiaztatu beharko dira betebeharrak eta merezimenduak, eta hizkuntz eskakizunari dagokionez, zehazki, HAEEn, Hizkuntza Eskola Ofizialaren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren nahiz eskumena duen beste administrazio publikoren baten ziurtagiri bidez. Gasteizko Udalak beste erakunde eta instituzio batzuen laguntza izango du, ziurtagiriak ofizioz lortze aldera, beti ere modu orokorrean (ez banakoan) egiten bada. (ikus 10.2. oinarria).

6.10. Hautatze prozesuaren edozein unetan ere, jatorrizko agiriak eskatu ahal izango dituzte Funtzio Publikoaren Sailak eta epaimahaiak.

6.11. Hautatze probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzearen, epaimahaiak neurri bereziak hartu ahalko ditu, kasuak alde aurretik aztertu ondoren. Esaterako, azterketako egunak edo datak egokitzea, haurdunaldiagatik edo erditze, erditu aurreko edo ondoko aldiak izateagatik arriskuak izan daitezkeen arrazoiak tarteko, ekintza positiboaren legezko definizioan adierazitako proportzionaltasunari jarriki. Edonola ere, egoera horiek proba edo ariketa egin aurretik jakinarazten behar zaizkio epaimahaiari, medikuaren agiri bidez egiaztatuta.

**Zazpigarrena. Hautatze sistema**

Oposizio-lehiaketa bidez egingo da hautaketa; horien osagarri, prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia egin beharko dira hautatze prozesuaren baitan.

**7.1. Merezimendu-lehiaketa.**

Gehienez 10 puntu emango dira atal honetan:

**7.1.1. Euskara jakitearen balioespena: 7 puntu.**

B2 (2. HE) edo goragokoa egiaztatzen dutenek atal honetako gehienezko puntuazioa lortuko dute, besterik gabe. B1 (1. HE) egiaztatzen dutenek, berriz, horren erdia eskuratuko dute, hau da, 3,50 puntu.

Euskararen jakite-maila egiaztatzeko ere dagokion proba egingo da, borondatezkoa. Proba horretan parte hartu ahal izateko, lehiakideak alde aurretik adierazi behar du deialdian parte hartzeko eskabidean, horretarako emandako epean.

Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratzeaz batera, hamar egun balioduneko epea emango du epaimahaiak merezimendu horri dagozkion agiriak aurkez daitezen eta merezimendu-lehiaketan balioesterik izan dadin. Epea bukatutakoan ez da agiririk onartuko.

**7.1.2. Hizkuntzak jakitearen balioespena: 3 puntu.**

EAEko hizkuntza ofizialak ez diren beste hizkuntzetako B2 titulu bakoitzeko puntu 1.

**7.2. Oposizio fasea.**

Gehienez 90 puntu lortu ahal izango dira atal honetan; ariketa hauek osatuko dute:

Dagozkien eranskinak web-orrian daude eskuragarri.

**7.2.1. Lehen ariketa.** Ezagutzaren balioespena. Lehiakide guztiek ezagutza neurtzeko bi proba egin beharko dituzte. Proba horiek nahitaezkoak eta baztertzailleak izango dira. 35 puntu gehienez. Epaimahaiak alde aurretik zehaztu eta jakinaraziko ditu probak gainditzeko eta kalifikatzeko irizpideak.

1. ariketa. 1. proba. Nahitaezkoa eta baztertzaillea. II. eranskineko gaiei buruzko ezagutza neurtzekoa. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu. Aukera anitzeko galderak erantzun beharko dira idatziz.

1. ariketa. 2. proba. Nahitaezkoa eta baztertzaillea. Gasteizi buruz duten ezagutza neurtzeko proba. Gehieneko puntuazioa: 15 puntu. III. eranskineko gaiei buruzko aukera anitzeko galderak erantzun beharko dira idatziz,

**7.2.2. Bigarren ariketa.** Gaitasun fisikoak neurtzekoa. Nahitaezkoa eta baztertzaillea izango da. I. eranskinean ageri diren probak egin beharko dituzte lehiakideek, eta eranskin horretan bertan azaltzen diren formulen arabera balioetsiko dira.

Ariketa horretan 4 proba egin beharko dira eta gehienez ere 20 puntu lortu ahal izango dira; horietako bakoitzean ezarritako gutxieneko maila lortu beharko da gainditzeko. Ariketa fisikoak egitea parte hartzaileen erantzukizuna eta ez beste inorena izango da; lehiakideek kirol jantzi egokiak eraman beharko dituzte. Dopinaren kontrako ausazko kontrolak zein orokorrak egin ahaliko ditu epaimahaiak; egiteari uko egin edo positiboa emanez gero, gainditu gabetzat joko da ariketa.

**7.2.3. Hirugarren ariketa.** Norberaren trebetasun eta gaitasunak neurtzekoa. Bi proba izango dira, nahitaezkoak eta baztertzailleak, lehiakide guztientzat. Ariketa honetarako, proba hauen diseinu eta balorazioan aditutako pertsona bat edo hainbat izendatuko dira. 35 puntu gehienez. Epaimahaiak alde aurretik zehaztuko ditu probak gainditzeko eta kalifikatzeko irizpideak.



3. ariketa. 1. proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Test psikometrikoak izango dira, lanpostuari dagozkion arloetan lehiakideen trebetasun eta nortasuna neurtzeko eta eskatzen den lanbide-eskakizunetara egokitzen diren baloratzeko. Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 25.

3. ariketa. 2. proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Elkarrizketa, lehiakideak deitutako lanpostuko profileko zereginak eta funtzioak betetzeko duten jokabidearen eta gaitasunaren egokitasuna zehazteko. Elkarrizketa egin aurretik, lehiakideek curriculum vitae sinplifikatua bete beharko dute, aldez aurretik lehiakideei emango zaien formatu normalizatuan egina. Curriculum vitaeak ez du puntuak lortzeko balioko, elkarrizketan laguntzeko bakarrik balioko du. Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 10.

#### **Zortzigarrena. Emaitzak argitaratzea**

8.1. Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira kalifikazioak. Hala ere, Funtzio Publikoaren Sailak 1.6 oinarrian adierazitako bideak ere baliatuko ditu informazioa zabaltzeko.

8.2. Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, hiru eguneko epea izango da erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari zuzendu behar zaizkio.

8.3. Aukera anitzeko galderen bidezko ariketak (test erakoak) egin ondoren, epaimahaiak erantzun zuzenen orria eta kalifikazio irizpideak argitaratuko ditu, proba psikometrikoen kasuan izan ezik, horiek kopiatzea deontologia eta jabetza intelektualaren arauen menekoak baita, eta eztabaidaezinak diren estandar zientifikoaren arabera baremoak baliatuz zuzentzen baitira.

8.4. Ariketak oro eta merezimendu-lehiaketa burutu ondoren, eta epaimahaiari aurkeztutako erreklamazioak ebatzi direlarik, proba guztiak gainditu dituzten lehiakideen zerrenda emango du argitara epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera sailkatuta, ariketa bakoitzean lortutako puntuak ageri direla.

8.5. Lehiakideek horretarako epearen barruan aurkezten dituzten berrikusteko eskabide eta erreklamazioak oro aztertu eta erantzuntzat joko dira epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko erabakia hartzen duelarik.

8.6. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiak argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita eta hilabeteko epean, haien kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute lehiakideek, Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari zuzenduta.

#### **Bederatzigarrena. Prestakuntza-ikastaroa eta praktika aldia**

9.1. Nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira prestakuntza-ikastaroa eta praktika aldia, zein bere aldetik, eta, gainditu ez baditu, lehiakidea hautatze prozesutik kanpo geratuko da eta deialdi honek xede duen Gasteizko udaltzaingoko agente kategorian sartzeko eskubideak oro galdu egingo ditu.

9.2. Prestakuntza-ikastaroa eta praktika aldia ezingo dira batera egin. Biak batuta, ezingo dute 30 hilabetetik gorako iraupena izan.

##### **9.3. Prestakuntza-ikastaroa**

a) Prestakuntza-ikastaroa ikasturte akademikoa izango da, nahitaezkoa eta baztertzaila. Ikasketa planean eta ezargarri den araudian zehaztuko dira edukia, balioesteko eta gainditzeko iraupena, eta iraupena.

b) Prestakuntza-ikastaroko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki taulan argitaratuko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Nagusiak. Hala ere, kalifikazio horiek deialdi honetan hautatze sistematik eratorritako ekintza administratiboak argitaratzeko zehaztutako lekuetan ere kontsulta-gai jar daitezke, informazio ondorioetarako. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan argitaratzen den data izango da erabakigarria epeak zenbatzeko



c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak bazter utziko ditu prestakuntza-ikastaroa gainditzen ez duten lehiakideak.

#### 9.4. Praktika aldia

a) Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktika aldia egingo dute Gasteizko Udaltzaingoan, hautagaiek beren jarduera-arloen arabera erabateko prestakuntza lortzeko eta, bereziki, Gasteizko Udaltzaingoko zerbitzuen egitura eta jarduera ezagutzeko egokien suertatzen diren zentro edo bulegoetan.

b) Praktika aldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Nagusiak praktika aldi horren iraupena eta praktikak balioesteko eta gainditzeko sistema eta prozedurak zehaztuko ditu ebazpen bitartez.

Benetako praktika aldiak 12 hilabete iraungo ditu. Horietatik kendu egingo dira aldi baterako ezintasun, baimen eta abarri dagozkion absentiak. Aldi hori luzatu egin ahalko da, gehienez 26 hilabetera arte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatuta.

Ez da ebaluatuko benetako praktika aldia amaitzen denetik karrerako funtzionario izendatu bitartean praktiketan ematen den denbora.

Ebazpena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki taulan argitaratuko da. Hala ere, kalifikazio horiek deialdi honetan hautatze sistematik eratorritako ekintza administratiboak argitaratzeko zehaztutako lekuetan ere kontsulta-gai jar daitezke, informazio ondorioetarako. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan argitaratzen deneko data izango da erabakigarria epeak zenbatzeko

c) Praktika aldiaren zehar Gasteizko Udaltzaingoko agente kategoriari dagozkien zereginekin lotutako gaitasuna balioetsiko da. Praktika aldirako ezarritako denboran gertatzen dena bakarrik ebaluatuko da.

d) Praktika aldiaren kalifikazioak b) atalean aurreikusitako moduan argitaratuko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Nagusiak.

e) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak bazter utziko ditu praktika aldia gainditzen ez duten lehiakideak.

#### **Hamargarrena. Datu pertsonalak**

10.1. Hautatze prozesuan parte hartzeak eskabidean adierazitako datu pertsonalen tratamendua onartzen dela esan nahiko du, hau da, hautatze-prozesu honen kudeaketa eta prozesuaren baitako emaitza partzialak nahiz behin betikoak buletinetan, iragarki tauletan, web-orrian eta bestetan argitaratzea onartzen dutela lehiakideek.

10.2. Dokumentazioa berrikusteko eta eratzeko prozedura arintzeko, eta parte-hartzaileen agirien kreditazio prozedura errazteko, hautatze-prozesuan parte-hartzeko eskabidea aurkeztea deialdi honetako merezimendu eta betebeharren inguruko informazioa beste erakunde batzuei eskatzeko berriazko baimentzat joko da.

- Prestakuntza: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila
- Gidatzeko baimenak: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia
- Euskara: Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua
- Justizia Saila
- Ertzaintza

10.3. Publikotasun printzipioaren menpe daude hautatze prozesuak; beraz, lehiakideak bere datuak baliatzea onartat eman ezean, ez da haren eskabidea onartuko. Norberaren datuak ikusi,

zuzendu, ezeztatu nahiz kontra agertzeko eskubideak baliatzeko, deialdia egin duen organoarengana jo ahal izango da.

#### **Hamaikagarrena. Izendatze proposamena**

11.1. Izendatze proposamena Udaleko Laneko Osasunaren Atalak "gainditua" kalifikazioa ematearen mende egongo da, bera baita epaimahai medikoa; Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartu zeneko Dekretua bigarrenaz aldatzeko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zk.) aurreikusitako bazterte medikurako taularen arabera izango da hori. (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zk)

11.2. Oposizio-lehiaketako fase guztiak bukatzean, kalifikaziorik hoberenak lortu dituzten lehiakideak izendatzeko proposamena biltzen duen akta igorriko dio epaimahaiak Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari. Izendatzeko proposatzen diren lehiakideen kopuruak bat etorri beharko du bete beharreko lanpostuen kopuruarekin (Funtzio Publikoaren Sailak txostena egin beharko du alde aurretik, horretarako). Berdinketarik gertatuz gero, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako irizpidea baliatuko da (Legearen 20.4 a artikulua).. Berdinketak jarraitzen badu, oposizio-aldian punturik gehien lortu duen lehiakidea proposatuko da; hor ere berdinketak berean segitzen badu, hirugarren ariketan, bigarrenen eta lehenengoan lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan, hurrenkera horretan. Hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehiakide zaharrena proposatuko da.

11.3. Hizkuntza eskakizuna betetzea ezinbesteko duten eta ez duten lanpostuak daudenez, baldintza hori betetzen dutenen artetik aukeratuko ditu lehenik epaimahaiak izendatu beharrekoak, puntuazio hurrenkeraren arabera. Ondoren, berriz, derrigortasun datarik ez duten lanpostuetarako izendatu beharrekoak aukeratuko ditu, modu berean.

#### **Hamabigarrena. Egiaztagiria aurkeztea**

12.1. Agente lanpostuetarako hautatze-probak gainditu eta epaimahaiak praktika aldiko funtzionario izendatzeko proposatzen dituen lehiakideek hamabost egun baliaduneko epearen barruan aurkeztu beharko dituzte oinarri hauetan adierazitako betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak, behin betiko kalifikazioak argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.

12.2. Horrela jokatu da ere, praktika aldia hasi aurretik edo karrerako funtzionario izendatua izan aurretik bete beharreko baldintzekin. Eskumena duen organoak gehienez, 15 eguneko epea ezarriko du dagozkion betekizunak egiaztatzeko, lehenago egiaztatu ez badira.

12.3 Zuzenbide Zibilaren doktrinan eta jurisprudentzian definitutako zorizko edo ezinbesteko kasuak salbu, baldin eta proposatutako lehiakideak adierazitako epean agiriak aurkezten ez baditu edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak eman izanagatik erantzukizunak eskatzea. Behin betiko sailkapenaren hurrenkerari jarraiki ordeztuko dira halakoak.

#### **Hamahirugarrena. Prestakuntza eta praktika aldiari aplikatu beharreko erregimen juridikoa**

13.1. Proposatutako lehiakideek hautatze prozesuko beste fase bat ere gainditu beharko dute: alde batetik, prestakuntza aldi bat egin beharko dute; bestetik, berriz, praktika aldia. Hori programatu, antolatu eta zertzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio; dena den, hark toki erakundeko prestakuntza zentroen esku utzi ditzake antolaketa eta gauzatzea, eskatuz gero.

13.2. Agiriak aurkezteko epea bukatzen denean, hautatuak izateko proposatutako zerrenda argitaratuko da ALHAOn, eta horiek praktika aldiko funtzionario izendatuko. Horrenbestez, prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia egin beharko dute, harik eta karrerako funtzionario izendatu edo hautatze prozesutik kanpo utzi arte.

13.3. Praktika aldiko funtzionario diren bitartean, C2 sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien pareko ordaina jasoko dute. Ordain hori gehitu egingo da baldin eta praktika aldia lanpostu batean jardunez egiten bada, hari dagozkion osagarrizko ordainketak ere ordainduz.

13.4. Prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia ezingo dira batera egin. Biak batuta, ezingo dute 30 hilabetetik gorako iraupena izan.

13.5. Prestakuntza ikastaroak eta praktikak, zeinek bere aldetik, baztertze indarra izango dute, eta gaintzen ez badira, lehiakidea hautatze prozesutik kanpo geratuko da besterik gabe, eta dena delako eskala edo kategorian sartzeko eskubideak oro galdu egingo dira.

Hala ere, munta handiko arrazoiren bat dela-eta lehiakideren bat ez bada ikastarora edo praktika aldira agertzen, edo ez baditu burutzen, hurrena berriro egiten direnean egin ahal izango ditu, zegokionean egitea galarazi zioten arrazoiak desagertu direlarik. Ikastaroa eta praktika aldia antolatu eta bideratzearen ardura duen organoaren esku egongo da dena delako arrazoi aintzat hartzekoa den ala ez erabakitzea.

13.6. Prestakuntza ikastaroko eta praktika aldiko emaitzak ikusirik, prozesua gaintu duten lehiakideak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du Akademiak.

13.7. Praktika aldia gaintzen ez dutenek izendatuak izateko eskubideak oro galduko dituzte, alkatearen ebazpen arrazoitu dela medio, eta lanpostua bete gabe geratuko da.

13.8. Prestakuntza-ikastaroa akademiarekin baliozkotzen dutenak zuzenean pasako dira praktika aldira, eta prestakuntzatik salbuetsita egingo dira.

#### **Hamalagarrena. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea**

14.1. 9.3. oinarrian xedatutako salbuespena alde batera utzita, praktika aldia gaintu dela adierazten duen Polizia Akademiaren zuzendariaren ebazpena ematen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean, karrerako funtzionario izendatuko dira hura gaintu duten lehiakideak, Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpen baten bitartez (ALHAOn emango da argitara).

14.2. Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariak izendapena egin ondoren, 10 egun balioduneko epean jabetu beharko du lanpostuaz izendatutako pertsonak, jakinarazpenaren berri ematen zaion egunaren biharamunetik kontatuta. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez duela aitortu beharko du lehiakideak. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak, munta handiko arrazoiren bat izan ezik, lanpostuari uko egin zaiola esan nahiko du.

14.3. Zerbitzuarengatiko kalte-ordainei dagokienez Gasteizko udalerrria joko da beti bizilekutzat.

#### **Hamabosgarrena. Kontra egitea**

15.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan jo ahal izango dute interesdunek deialdiaren edo epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzen kontra.

#### **Hamaseigarrena. Eranskinak**

Deialdiaren eranskinak “[www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak](http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak)” web-orrian argitaratuko dira

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 15ean

*Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria*  
**JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA**